

TREBAKUNTZA 2017-02: GERUNDIOA

Udal idazki askotan gerundioa gaizki erabili ohi da. Akatsaren jatorria, askotan, gaztelaniazko gerundioaren erabilera okerra da.

OHARRA: Asteriskoz eta kurtsibaz idatzitako esaldiak gaizki daude, eta gainerakoak zuzen.

OHIKO AKATSAK

1. ** Gizarte Ongizate zerbitzuaren ordutegia goizeko zortzietatik arratsaldeko hirurak artekoa da, arratsaldez itxita dagoelarik.*
2. **Gaur haize bolada zakarrak izango ditugu Euskal Herri osoan, zenbait tokitan arriskutsuak izan daitezkeelarik.*
3. **Saskimaski SA enpresak irabazi du lehiaketa, obrak bere ardurapean geratuko direlarik.*
4. **Herritar horrek gutun bat bidali dio udalari, ordaindutako dirua itzultzeko eskatuz.*
5. **Kilili SL enpresak obrak egingo ditu kale horretan, espaloiak zabalduz eta bi semaforo jarritz.*
6. [Gutun baten amaieran] *Udal langileengan jarri duzun konfiantza eskertuz, jaso ezazu agur bero bat.*

ZUZENKETAK ETA AZALPENAK

1. Bi ideia **ezin dira** besterik gabe elkartu **-(e)larik erabilia**. Horretarako, beste baliabide batzuk erabili behar dira; adibidez, **eta, horren ondorioz** edo lokailuak (izan ere, gainera...).

Ad. Gizarte Ongizate zerbitzuaren ordutegia goizeko zortzietatik arratsaldeko hirurak artekoa da, **eta** arratsaldez itxita egongo da.

Gaur haize bolada zakarrak izango ditugu Euskal Herri osoan; **kontuz, izan ere** zenbait tokitan arriskutsuak izan daitezke.

U d a l e r r i E u s k a l d u n e n M a n k o m u n i t a t e a

www.uma.org

Saskimaski SA enpresak irabazi du lehiaketa; **horren ondorioz**, obrak bere ardurapean geratuko dira.

OHARRA: -(e)larik = -(e)nean. Ikusi adibide hauek:

Ad. Autoa gidatzen ari **nintzelarik (=nintzela edo nintzenean)**, azeri bat ikusi nuen errepidearen erdian.

Lotan **nengoelarik (nengoela edo nengoenean)** joan omen zen argindarra.

2. Askotan, bi ideiaren arteko harremanak **kausa-ondorioa** adierazten du. Kasu horietan, **ezin zaio bigarren aditzari -(e)z erantsi**. Horretarako, beste baliabide batzuk erabili behar dira; batzuetan **-t(z)eko** erabiltzea oso komenigarria da.

Ad. Herritar horrek gutun bat bidali dio udalari, ordaindutako dirua itzultzeko **eskatzeko**. Kilili SL enpresak obrak egingo ditu kale horretan; **horren ondorioz**, espaloiak zabaldu eta bi semaforo jarriko dituzte.

OHARRA: bi esaldi lotzeko, aditz bati **-(e)z** eranstean badiogu, esan nahi du **nola** galderari erantzuten diogula eta ekintzak **aldi berean** gertatzen direla.

Ad. Trenean etorri naiz, liburua irakurriz.

- **Nola** etorri naiz trenez? Liburua **irakurriz** / irakurtzen.
- **Bi ekintzak** (trenean etortzea eta irakurtzea) **aldi berean** gertatzen dira.

Zaleak agurtuz alde egin du futbol zelaitik.

- **Nola** alde egin du futbol zelaitik? Zaleak **agurtuz**.
- **Bi ekintzak** (alde egitea eta agurtzea) **aldi berean gertatzen dira**.

3. *Eskertuz* eta antzekoak baino egokiagoak dira **mila esker, eskerrik asko, esker anitz...**

Ad. **Mila esker** udal langileengan jarri duzun konfiantzagatik. Jaso ezazu agur bero bat.

Udal erri Euskaldunen Mankomunitatea

www.uema.org

Donibane enparantza 1, 1.a
48380 Aulesti
Bizkaia
94-627.91.95

Done Petri 14, behea
20180 Oiartzun
Gipuzkoa
943-26.03.72

Enparan kalea 1, 2.a Sindikatu zaharra
20.734 Azpeitia
Gipuzkoa
943-81.66.99

Azalpenotatik zerbait ulertu ez baduzu, edo gehiago sakontzeko ariketarik nahi baduzu, jarri harremanetan UEMAKo teknikariarekin edo zure udaleko euskara teknikariarekin:

Telefonoz: 94-6279195 (Iratxe)

Posta elektronikoz: iratxe.udalak@uema.eus (Iratxe)

Hurrengora arte!

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea

www.uema.org

Donibane enparantza 1, 1.a
48380 Aulesti
Bizkaia
94-627.91.95

Done Petri 14, behea
20180 Oiartzun
Gipuzkoa
943-26.03.72

Enparan kalea 1, 2.a Sindikatu zaharra
20.734 Azpeitia
Gipuzkoa
943-81.66.99